

LA PAMPLONESA GAYARREN. 2023 MUGARIK GABE



www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

ZINEMAKO MUSIKA JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLAREKIN ELKARLANEAN

APIRILAK 2, IGANDEA. 12:00

■ LUIS M^a SAN MARTÍN URABAYEN

"Zinemako musika askatasun osoz eta neurmitasunari erreparatu gabe hitz egiteko modu bat da niretzat. Soinurik zuzenena eta berehalakoena da, edozein adin eta izaeratako ikusleari sentimenduak sorrarazteko gai da. Zaila da zinemako musika bati esker, musika hori edozein izanik ere, hunkitu ez den norbait aurkitzea".

(ROQUE BAÑOS)

2001. urtetik, *La Pamplonesa* eta Iruñeko "Joaquín Maya" Udalaren Musika Eskola elkarlanean ari dira. Hiru urte ospatu ezinik igaro ondoren, hogeigarren ediziora iritsi da. Zazpigarren arteari eskainitakoa da, eta hainbat zinema-generotako soinu-banda onenetako batzuk entzunen dira. Bakoitzak ekiteko modu berezi bat eskatzen du, eta hori da trebatzen ari den ikasle batek esperientzia honek eskuratuko duena, baita zinema-menu handi batez gozatu ahal izanen duen publikoak ere.

Zinemaren hastapenetan, XIX. mendearen amaieran, musika-akonpainamendua zuzenean egiten zen, piano edo orkestra txiki baten laguntzaz. Zinema soinudunaren pasarte musikalki maitasun-eszena batzuetan edo testurik gabeko sekuentzietan sartu ziren, ekintzari nahiko modu sinplean egokiturik. 1933an, Max Steinerrek irudiekin sinkronizatutako jatorrizko partitura baten eragina frogatu zuen *King Kong* filmean. Ordudunik, filmaren gozamerako funtsezko elementua da, baita bakarrik ere, eta horrela egiaztatuko da Joaquín Maya Eskolako ikasleekin batera, besteak beste, *Gladiator*, *Lehoi erregea* edo *The great scape* bezalako tituluetan.

Bigarren zatian, *La Pamplonesa* bi titulu berezi jorratuko ditu lehen aldiz. John Williams buruz (1932-) ezer gutxi dago esateko; bere musikak milioika zinemazale hunkitzen ditu, eta kontzertu honetan biritan gozatzeko aukera izanen dugu. *Harry Potter* rez gain, *The Cowboys* en musika entzunen dugu. John Wayne da 1972ko western horretako protagonista, eta bere taldeko gizonak urte bila joan direnez, haiek ordezkatzeko hamar gazte erreklutatzen dituen abeltzain baten istorioa kontatzen du. Musikak zaldi



basatien izaera eta heziera transmititzen ditu. Lan neketuaren ondoren, gazteak heldu eta gizon bihurtuko dira. Filma arrakastatsua izan zen, eta Williams-ek berak zioen: "musika-partitura indartsua behar zuen. Nire lagun André Previnek partitura entzun zuenean, iradoki zuen behizain-espirituko obertura bat gordetzen zuela bere baitan. Urte askoan behin eta berriro saiatu ondoren, 1980an Boston Pops Orchestra sortu zen eta hark interpretatu zuen. Denei gustatu zitzaion, asko baitu gozatzeko. Hasiara ausarta eta indartsua da, western estiloko gaiak jorratuz. Erdiko sekzio luzea Aaron Coplanden estilokoa da, eta Montanako filmaren paisaia zabalak gogorazten ditu. Eta amaieran, hasierako ideiak errepikatzen dira" (J. Williams).

Roque Baños (Jumilla, Murtzia 1968-) Espainiako zinemarako musikaren erreferente nagusietako bat da. Murtzian eta Madrilen trebatua, goi mailako tituluduna da saxofoian, pianoan, harmonian, kontrapuntuan, konposizio eta instrumentazioan eta orkestra-zuzendaritzan. Bostongo (AEB) *Berklee College of Music* zentroan osatu zuen bere prestakuntza. Han, zinemarako eta jazzarako musikara bideratu zuen bere karrera. 14 aldiz izendatu dute *Goya Sarirako* eta 3 aldiz irabazi du (*Salomé*, 2003; *Las 13 rosas*, 2008; *Los crímenes de Oxford*, 2009). Vanessa Gardena nafarra bere taldeko kide izan da, eta 2022ko apirillean *La Pamplonesa* zuzendu zuen zinema-saio berezi batean. *Alatriste* filmaren suiteak (2006), kemena eta dotoretasuna transmititzen ditu, baina baita emozio eta nostalgiala ugari ere. Zoragarria. Gainera, John Williams miretsiarekin partekatzen du kartela. Oso gaztea zela eragin zion Williams-ek: "14 urte nituela ikusi nuen E.T., eta horrek nire bizitza aldatu zuen. Han ohartu nintzen zinemarako musika egin nahi nuela. Martetar batek nire bizitza aldatu zuen" (R. Baños).

PROGRAMA

I. ZATIA

Hatari

Baby Elephant
Walk-en abestia
HENRY MANCINI
Mold.: J. Edmondson

The Phantom of the Opera

Andrew Lloyd Webber
Mold.: Johnnie Vinson

Harry Potter

John Williams
Mold.: Michael Story

Gone with the Wind

Tara-ren abestia
MAX STEINER
Mold.: Ross Hastings

Gladiator

Hans Zimmer
Mold.: Paul Murtha

Lehoi Erregea

Elton John
Mold.: Paul Lavender

The Great Escape

Elmer Bernstein
Mold.: Laurent Delbecq

II. ZATIA

The Cowboys*

JOHN WILLIAMS
Mold.: Jim Curnow

Alatriste*

Suite
ROQUE BAÑOS

(* La Pamplonesa lehenengo aldiz joko du.

ZUZENDARIA

J. Vicent Egea

HURRENGO KONTZERTUA

Flamenco etxea

Apirilak 29, larunbata
Gayarre antzokia. 20:00

MUSIKARI BAKARLARIK:

José Luis Montón
Gorka Hermosa

Coral Barañain Abesbatza

ZUZENDARI GONBIDATUA:

Luis Orduña Ruidrejo